

4.- Bilerara joandakoek, besteak beste, honako erabakiak hartu zituztela aho batez:

I- Jose Angel Torres jaunak, kide sortzaileak, Patronatuko kide izateari uzteko asmoa zuela eta Fundazioan zeuzkan egitekoak eta ardurak Jon Torres Gutierrez semearen esku uzteko erabakia hartuta zuela azaldu ondoren, Jon izendatu zuela bere ondorengo, fundazioaren estatutuen 11. artikuluan araututakoari jarraiki. Patronatuko kide guztiak ados agertu ziren erabaki horrekin. Bestetik, Jon Torres Gutierrezek kargua onartu zuen eta leialtasunez eta arretaz beteko zuela agindu zuen, eta hori betetzeko legezko gaitasunik ezarik, ezta bateraezintasunik ere, ez duela ziurtatu zuen. Egintza horretan bertan, karguaz jabetu zen. Bestalde, esan beharra dago Jose Angel Torres jaunak kargua bere kabuz utzi eta bere ondorengoa izendatu duenez, ez dela egon horri bestelako jakinarazpenik egiteko beharrik.

II- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEAK ez duela inoiz patronatuko kiderik izendatu, nahiz eta fundazioaren 11. artikulua aukera hori agertu. Hori dela eta, estatutuen artikulua hori aldatzea adostu dute patronatuko kide guztiek, behean azaltzen den eran.

III- Aurreko bi erabakiak hartu ondotik, Fundazioaren Estatutuen 11. artikulua aldatzea onartu zutela patronatuko kide guztiek, eta artikulua idazketa berria honakoa izatea:

11. artikulua.- Patronatuko kideen izendatzea eta kargu-uztea eta hutsuneak betetzea.

1. Patronatua honako kideek osatuko dute:

- a) **JON TORRES GUTIERREZ** jaunak, sortzailearen ondorengo gisa. **Bere karguak biziarteko izaera izango du. JON TORRES GUTIERREZ** jaunak bere ondorengo patronatu-kidea izendatzeko ahalmena izango du.
- b) **JON TORRES GUTIERREZ** jaunak edo horrek ahalmendutako pertsonak notario aurrean patronatu-kide izateko izendatzen duen kide batek. Aitzitik, Jon Torres Gutierrez jaunak Fundazioaren sortzaileak izendatu zuen pertsona mantendu ahal izango du.

- c) **OIARTZUNGO UDALAK**, Patronatuan bi pertsonak eta bi botok ordezkatzuko dufena. Pertsona horietako bat Alkatea izango da, eta izendatzen den beste pertsonak ez du nahitaez udal-zinegotzi izan beharko.

JON TORRES GUTIERREZ jaunak ez baldin badu ez Fundazioaren sortzaileak izendatutako pertsona mantentzen ezta patronatuko kiderik izendatzen ere, edo inori ez badiu kide hori izendatzeko ahalmenik ematen, Patronatuak berak izango du pertsona izendatzeko ahalmen hori hutsunea bete ahal izateko.

2. Patronatuko kideek kargua utziko dute:

- a) Heriotzagatik.
- b) Heriotza edo ezgaitasun aitorpenagatik.
- c) Patronatuko kidea izendatzen duen erakundeko nortasun juridikoa azkentzeagatik.
- d) Uko egiteagatik.
- e) Kasuan kasuko izendapena egiten duen pertsonaren edo erakundearen adostasunagatik.

3. Hutsuneak edozein kausagatik sortzen direla ere, prozedura berari jarraituz beteko dira, edo, bestela, Patronatuaren beraren adostasunagatik. Egoera hori ezin izango da 6 hilabete baino luzeagoa izan.

4. Patronatu-kide izendatzen direnek berariaz onartu beharko dute kargua Legearen 16. artikuluan aurreikusten den formuletako bat jarraituta. Onarpen hori Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da.

5. Patronatuko kideek, hartzen dituzten erabakiak baliozkoak izan daitezen, gutxienez eta ezinbestean osatu beharko dute Estatutu hauetako 25.1 artikuluan zehazten den gutxienerako kide-kopurua.
6. Patronatuko kideen eginkizun-gabetzea epaileak erabaki ahal izango du euren aurka erantzukizun-ekintza dagoenean, karguak Legean eta Estatutu hauetako 21. artikuluan arautzen den arretaz ez betetzeagatik.
7. Patronatuko kideen ordezkatzeari, kargu-uzteari eta eginkizun-gabetzeak Fundazioen erregistroan inskribatuko dira.

IV- Jose Angel Torres kide sortzailerik urte hauetan guztietan egindako lana aitortzeko, Ohorezko Lehendakariaren kargua sortzea eta kargu horretarako Jose Angel Torres jauna izendatzea erabaki zutela Patronatuko kide guztiek; era horretan, Jose Angel Torres jaunak alde edo moldez Luberri lotuta jarraituko du, aholkulari zientifikoa gisa eta esleitzen zaizkion gainontzeko funtzioak betetzeko, nahiz eta Patronatuan erabakiak hartzeko ahalmenik ez eduki.

Horren harira, Patronatuko kide guztiek Fundazioaren Estatutuetan 14.bis) artikulua txertatzea erabaki zuten, horren edukia hau izanik:

“14 bis artikulua. Ohorezko lehendakaria.

Patronatuak ‘ohorezko lehendakari’ izendatu ahal du zeinahi pertsona fisiko edo juridiko, fundazioaren alde egindako lana aitortzeko. Ohorezko lehendakaria ez da izango fundazioaren patronatuko kideen jardura aztertu behar duen erantzukizunaren menpekoa, baina patronatuko kideen gehiengoak egokitzat joz gero, patronatuaren bileretan parte hartu ahal izango du eta, haietan, hitza izango du baina botorik ez. Hala berean, aholkulari zientifikoa baten betebeharrak izango ditu eta fundazioak antolatzen dituen ekitaldi publikoetan parte hartu ahal izango du”.

B 19331915

Geroago, patronatuko kide guztiek Jose Angel Torres jauna Ohorezko Lehendakari izendatu zuten eta berak kargua onartu zuen, eta leialtasunez zein arretaz beteiko zuela agindu zuen. Egintza horretan bertan, karguaz jabetu zen.

V- Azkenik, Jexux Leonet Elizegi, Josune Cousillas Aramendi, Jon Torres Gutierrez eta Manuel Gañan Valero jaun-andreek, fundazioaren estatutuek xedatukoari jarraiki, patronatuko kide guztiak bertan zeudela, bilera egin zutela eta, horretan, lehendakariorde berriaren izendapena berrestea eta gainerako karguei eustea adostu zutela, aho batez. Hortaz, kargu-uzteak eta izendapenak eguneratu ondoren, hauexek dira patronatuko kideak eta dagozkien karguak:

Lehendakaria

Jexux Leonet Elizegi jauna, adinez nagusia, ezkondua, Oiartzungo bizilaguna (Legarrea 11, Argia etxea, 2. solairua), 72441887Y NAN zenbakiduna.

Lehendakariordea

Jon Torres Gutierrez jauna, adinez nagusia, ezkongabea, Oiartzungo bizilaguna, (Karaez 9) 72522794E NAN zenbakiduna.

Idazkaria

Manuel Gañan Valero jauna, adinez nagusia, ezkondua, Larrabetzuko (Bizkaia) bizilaguna (Gorbea 3 — 1.A), 20168479D NAN zenbakiduna.


Patronatuko kidea

Josune Cousillas Aramendi andrea, adinez nagusia, ezkondua, Oiartzungo bizilaguna (Andrearriaga 10, Koxkotene etxea), 35767324R NAN zenbakiduna.

VI — Arestian aipatutako akordio guztiek izaera publikoa izan dezaten, JON TORRES GUTIERREZ jauna ahalmentzea notario aurrean ager dadila dagokion eskritura egilesteko.

5. Akta bileran bertan idatzi eta onartu zutela bertaratutakoek.


Eta horrela ager dadin eta beharrezko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egin dut, Oiartzunen, bi mila eta hamazortziko otsailaren batean.



O.E.

Jexux Leonet Elizegi

LUBERRI fundazioaren lehendakaria



Manu Gañan Valero

LUBERRI fundazioaren idazkaria



PC05



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 19331916



Bere matrizearekin fidelki bateragarri den **HITZEZ HITZEZKO KOPIA** da eta egitate hau aipaturiko matrizean ohartarazita geratu da. **LUBERRI OIARTZUNGO IKASGUNE GEOLOGIKOA FUNDAZIOA**ri egin diot notaritza dokumentuetarako bereziki erabiltzen den paperezko sei foliotan, B19331911 eta elkarren hurreneko zenbakiak. DONOSTIAN, 2018ko otsailaren 9an. FEDE EMATEN DUT. -----



[Handwritten signature]